



Hitzarmena

Aretxabaletako Udala eta BAILARA INDUSTRIAL NETWORK Elkartearen artekoa

Bildurik:

Alde batetik, Daniel Miguelez Martin jauna, NAN 16269217Y duena, adinez nagusia, "BAILARA INDUSTRIAL NETWORK" (aurrerantzean BAILARA) Elkartearen izenean (IFK zkb: G44772226) eta ordezkartizan.

Eta bestetik, Garikoitz Iturbe Etxebarria jauna, NAN 72457054Q duena, Aretxabaletako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Udalaren izenean (IFK zkb: P2001400G) eta ordezkari duena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta zera

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta/edo Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.25 artikulua jarraituz, Udalaren eskumenak dira:

- Toki ekonomia-eta gizarte-garapena.
- Tokiko enplegu-planak edo -politikak.

BIGARRENA: BAILARA irabazi-asmorik gabeko Elkartea da eta besteak beste, Elkartek honako xedea du: Debagoiena eskualdearen garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzea enpresen arteko saretze harremanetan oinarrituta.

BAILARAK Udalarekin lankidetzan jardun nahi du, ondorengo helburuekin:

- Udalerraren garapen ekonomiko eta sozialerako lankidetzak-estrategia publiko-pribatuak definitzea eta aplikatzea.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria BAILARA INDUSTRIAL NETWORK, Daniel Miguelez Martin
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPJ217.m3mm



- Udalerrriaren etorkizuneko erronkei batera aurre egitea.
- Udalerriko enpresen lehiakortasuna sustatuko duten politika publikoak egiten laguntzea eta horretarako, beren esperientzia eta ezagutza eskaintzea.
- Udalerriko enpresa berriak erakartzeko ekintzak sustatzea eta egitea, elkartean udalerriko enpresa ordezkaritza handitzeko.

HIRUGARRENA: 2025eko urriaren 19an aurkeztutako idatziaren bidez, BAILARA Elkartek 2025erako aurreikusitako ekintzak gauzatzeko dirulaguntza eskatu dio Aretxabaletako Udalari. Eskabidearekin batera diruz lagundu nahi diren jardueren buruzko memoria aurkeztu du.

LAUGARRENA: BAILARA Elkartek ez dauka debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak.

BOSGARRENA: Aretxabaletako Udalak onartuta duen dirulaguntzen 2025-2027 eperako plan estrategikoan, besteak beste, honako hau jasotzen da:

Bailara Industrial Network programa:

Xedea: Debagoieneko eskualdean garapen soziala eta ekonomikoa bultzatzea.

Udalak zer lortu nahi duen:

- BAILARAK egingo dituen ekintzen bidez bailarako garapen soziala eta ekonomikoa bultzatzea.
- Udalerriko enpresa berriak erakartzeko ekintzak sustatzea eta egitea, elkartean udalerriko enpresa ordezkaritza handitzeko.
- Udalerriko enpresen lehiakortasuna sustatuko duten politika publikoak egiten laguntzea eta horretarako, beren esperientzia eta ezagutza eskaintzea.
- Aretxabaletako enpresa sarea mantentzen, indarberritzen eta sustatzen laguntzea.

Norentzat: BAILARA Industrial Network.

Ematekoaren modalitatea. Izendun dirulaguntza zuzena, hitzarmen erregimenean.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria BAILARA INDUSTRIAL NETWORK, Daniel Miguelez Martin
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPJ217.m3mm



Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa: 10.000 €, 1.0512.481.241.00.01.2025 (2269) BAILARA erakundea dirulaguntza.

Hori guztia dela eta, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute.

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Alde bien arteko hitzarmen honen helburua da 2025. urtean BAILARA Elkarteak egiten duen lana diruz laguntzea: Debagoiena eskualdearen garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzea enpresen arteko saretze harremanetan oinarrituta.

BIGARRENA: Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legetik kanpo geratzen da. Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua aplikatuko zaio.

HIRUGARRENA: BAILARA Elkartearen betebeharrak.

BAILARA Elkarteak 2025. urtean zehar antolatuko dituen ekintza guztietan Aretxabaletako Udala babesle gisa azalduko da. Horrenbestez, argitaratzen dituen kartel, euskarri eta antzekoetan Udalaren logoa agertuko da, Udal honek diruz laguntzen duela adieraziz.

Dirulaguntzen kudeaketan Udalak egin beharreko egiaztatze lanak onartuko ditu, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta lan horiek egiteko errekeritzen zaion informazio guztia emango du.

Jasotako diruaren erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeelako.

BAILARA Elkarteak jasoko duen dirulaguntza bakar bakarrik dirulaguntzaren xederako erabiliko du.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria BAILARA INDUSTRIAL NETWORK, Daniel Miguelez Martin
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPJ217.m3mm



Dirulaguntza zurituko du, eta ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez baditu, dirulaguntza itzuli beharko du.

LAUGARRENA: Aretxabaletako Udalaren betebeharrak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, eta Aretxabaletako Udalak 2025. urterako onartutako udal aurrekontuekin bat etorritik, BAILARA Elkarteari 10.000 euroko dirulaguntza ematen zaio 1.0512.481.241.00.01.2025 partidaren kontura, jarraian adierazitako moduan:

10.000 euroko zenbatekoaren %70a, hitzarmena sinatu ondoren ordainduko da, ordainketa aurreratu gisa, betiere Udalak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua betez, Udalak datuen bitartekaritza- plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta egingo die Elkartek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, Elkartek ezingo du zorrik eduki Aretxabaletako Udalarekin.

Diru laguntzaren azken ordainketa onuradunaren justifikazioa jaso ondoren egingo da, diru laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo ezarpena gauzatu izana egiaztatutakoan.

BOSGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekareruak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria BAILARA INDUSTRIAL NETWORK, Daniel Miguelez Martin
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPJ217.m3mm



e) Errentaren gaineko zergak.

SEIGARRENA: Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da tokiko, eskualdeko, nazioko, nazioz gaindiko eta nazioarteko administrazioetatik jasotako beste edozein laguntzarekin edo dirulaguntzarekin. Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan. Hala gertatuko balitz, elkarteak dirua itzuli egin beharko luke dagokion proportzioan.

ZAZPIGARRENA: Genero-berdintasuna.

Diruz lagundutako proiektua gauzatzera koan, BAILARA Elkarteak ezingo du hizkera sexistarik erabili dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan).

BAILARA Elkarteak ezingo du inolako dirulaguntzarik jaso honako kasuetan:

1. Bere xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistemak, funtzionamenduak, ibilbideak, jardunak, antolamenduak edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun- printzipioa urratzen badute.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatua izan bada, sexu-arrazoiak direla-eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratzeagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez baditu.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, emakume edo emakume-taldeen bereizkeria eragiten duten jarduerak, izan sexuagatik izan diskriminazio anitzeko faktoreengatik, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria BAILARA INDUSTRIAL NETWORK, Daniel Miguelez Martin
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPJ217.m3mm



ZORTZIGARRENA: Euskararen erabilera.

BAILARA Elkarateak ondorengoak beteko ditu:

- Diruz lagundutako jarduera dela-eta argitaratzen dituen informazio-orri, iragarki, kartel, ohar eta gainerako jendaurreko komunikazioak, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatziko ditu, euskarari lehentasuna emanda; eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu du.
- Ekitaldi publikoetako ahozko adierazpenetan lehentasuna emango dio euskarari.
- Antolatzen dituen ekintzetan ere (ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak...) euskarak presentzia izango du beti, hartzaileen hizkuntza tipologokiak ematen dituen aukeren arabera.

Betebehar horiek bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da. Hori guztia, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan xedatutakoa betez.

BEDERATZIGARRENA: Jarraipena batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko alde bien artean osatutako jarraipen batzordea eratuko da eta alde bakoitzak kide bana izendatuko du. Batzorde hau alde bietako edozeinek eskatzerakoan batzartuko da hitzarmena betetzeko egon daitezkeen desadostasunak konpontzeko.

HAMARGARRENA: Dirulaguntzaren zuriketa.

BAILARA Elkarateak jasotako funtsen erabilera egokia zuritzeko konpromisoa hartzen du.

Zuriketa hori, nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30. artikuluan eta lege honen Erregelamenduaren 72. artikuluan xedatutakoari egokituko zaio, eta 2026ko urtarrilaren 10a baino lehen aurkeztu beharko da Aretxabaletako Udaletxean, erregistro elektronikoko bidez, eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Jardueren azalpen memoriaz gain, egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

- a) Jardueren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria BAILARA INDUSTRIAL NETWORK, Daniel Miguelez Martin
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPJ217.m3mm



- b) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendan sartuta daudenak, eta hala badagokio, horien ordainketa egiaztatzen duten agiriak.
- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean egongo da azken sinaduraren egunetik 2025eko abenduaren 31 arte. Berau aldatzeko alderdien aho bateko adostasuna beharko da.

HAMABIGARRENA: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa betetzeko, aplikatu daitezkeen guztian.

HAMAHIRUGARRENA: Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren epea igaro izana.
- b) Alde bien aho bateko akordioa.
- c) Alde bietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu honetan, bi aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, ahalik eta lasterren bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimendua egin eta gero ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua egin duenak beste aldeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoa gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteak eragindako kalteak ordaindu behar izatea ekar dezake.

- d) Hitzarmenaren baliogabetzea deklaritzen duen erabaki judiziala.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria BAILARA INDUSTRIAL NETWORK, Daniel Miguelez Martin
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPJ217.m3mm



HAMALAU GARRENA: Jurisdikzioa.

Hitzarmenaren aplikazioari, interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak alde bien artean erabakiko dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarri aurretik, judizioz kanpoko akordio batera iristeko bide guztiak agortuko dira.

Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek izango dute auzigaiak ezagutzeko eskumena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

HAMABOS GARRENA: Gardentasun ataria.

Hitzarmena Udalaren gardentasun atarian argitaratuko da.

Eta jasota gera dadin, adostasuna adierazteko, aldeek elektronikoki izenpetzen dute hitzarmen hau, eta azken izenpetzailearen data hartzen da dokumentu hau formalizatzeko datatzat.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria BAILARA INDUSTRIAL NETWORK, Daniel Miguelez Martin
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPJ217.m3mm